

BANKU LAGUNKOIA

Agiri hau sinatzen duten alderdi politikoek, indarrean dagoen legeriaren babesean, ondoko transakzio akordioa adostu dute:

TRANSAKZIO AKORDIOA

1. Zaldibiako Udalak adierazi du herritar guztiek izan behar dutela finantza-zerbitzuetarako sarbidea, eta ezin dela egon irisgarritasuna eta aurrez aurreko arreta zailtzen edo eragozten duen arrazoirik, arreta berezia jarritz adinekoei eta zailtasun bereziak izan ditzaketenei.
2. Zaldibiako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio finantza-erakundeekin hitz egin dezala, herritarrak oro har finantzen arloaren barnean sartzen direla bermatzeko neurri berriak abian jartzeko, arreta berezia jarritz adinekoen eta zailtasun bereziak izan ditzaketen pertsonen kolektiboari.
3. Zaldibiako Udalak finantza-erakundeei eskatzen die, elkarrizketa eta azterketa prozesu honetan, finantza-erakunde horiek konpromiso hauek har ditzaten:
 - Kolektibo horien (hau da, adinekoen eta zailtasun bereziak izan ditzaketenen) premia bereziak kontuan hartzea, eta aipatutako kolektiboek administrazio publiko honetan egiten dituzten izapideetan izan ditzaketen arazoak aztertzea, eta kontuan izan dituzten premia bereziak zerbitzuak ematerakoan.
 - Herritarrak oro har finantzen arloaren barnean sartzen direla bermatzeko neurri berriak abian jartzea, arreta berezia jarritz adinekoen eta zailtasun bereziak izan ditzaketen pertsonen kolektiboari, eta bereziki ondokoei erreparatuz:
 - Kolektibo horri arreta hurbila eta azkarra ematea, kolektibo horri arreta ematea lehenetsiz, arreta pertsonalizatuago emanaz, eta telefono bidezko arreta ere indartuz.
 - Kutxaren ordutegia zabaltzea, bezeroen kontu korranteetan diru-sarrerak edo diru-ateratzeak egiteko ordu-murrizketak edo zenbatekoak saihesteko. Zerbitzu horiek oinarrizko kutxa-zerbitzuaren barruan daude, eta zerbitzu hori emateak ez du esan nahi komisioak kobratu behar direnik, Espainiako Bankuaren jardunbide egokien irizpideari jarraikiz; izan ere, irizpide horren arabera, erakundeek bezeroen eskura jarri behar dute, gutxienez, doako bitarteko bat, irisgarria eta segurua, beren kontutik eskudirua atera ahal izateko, kontuan hartuta kolektibo bakoitzaren inguruabar bereziak.
 - Kutxazain automatikoak dauden aztertu eta horiek bermatzea biztanle kopuruari erreparatuta, eta bulegorik ez dagoenean, bankuek eraikin publiko eta irisgarrietan jarri eta artatu ditzatela.
 - Aztertzea, Eusko Jaurlaritzarekin eta Finantzen Euskal Institutuarekin batera, udalerrri horietan eta banku-bulegorik ez dagoen landa-eremuetan, kutxazain automatikoak jartzeko laguntza eta finantzaketa neurriak.
 - Banku-bulegorik eta kutxazain automatikorik ez dagoen eremuetan, eskudirua sartu edo ateratzeko ohiko banku-zerbitzuak ematen dituzten autobusen edo bulego mugikorren maiztasun erregular eta egonkorra bermatzea.
 - Kolektibo horrentzat bereziki eskaintzen dituzten zerbitzuak edo produktuak lortzeko sistema digitalak edo makinak erabili behar izatea gutxitu, eta, horretarako, gaitasun digitalak eskuratzeko kanpaina bat bizkortzea eta bultzatzea, behar diren ezagutzak eta tresnak ez izateagatik oinarrizko zerbitzuak eskuratu ezin dituzten pertsonen bazterkeria hori jasan ez dezaten, eta banku lagunkoia lortzeko prestakuntza-ekintzak indartzea.
 - 2021eko uztailaren 21ean sinatutako bankaren konpromiso sozial eta jasangarria indartzeko protokolo estrategikoan lanean jarraitzea, finantza-inklusioa eta digitalizazioa sustatzeko.
2. Era berean, Zaldibiako Udalak Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen die beren eskumeneko zerbitzu guztietan aurrez aurreko arreta emateko, beharra duten pertsonen, bereziki kolektibo honetako pertsonen, beren eskaeren kudeaketan sortzen zaizkien arazoei erantzuna eman ahal izateko.